

# ARRIGORRIAGA.

## BILBOTAR ELKARGO "EUSKAL-ERRIA-RI."

POESIA PREMIADA, CON MEDALLA DE PLATA EN LOS JUEGOS FLORALES  
DE SAN SEBASTIAN DE 1883.

Azalkaya: «Gizon aundi aen oroitza bizi bedi gugan.»

Euskal-erriko arkaitz ta mendi  
Goyetan ¿zér da gertatzen?  
¿Zergatik dira, len paketsuak  
Ziran gizonak armatzen?  
¿Eta zergatik beren aizkorak  
Dituzte gora jasotzen,  
Eguzkiyaren errañuagaz  
Dutela diz-diz egiten?  
¿Zerr?... Jakin dute nola Malatoz  
Onontz Ordoño datorren.

Jakin dute ¡bai! nola datorren  
Arrokeriyaz beterik;  
Nola datorren Euskal-arraza  
Menderatzea pentsarik;  
Sola datorren Asturiyako  
Martizti<sup>1</sup> danak arturik;  
Nola datorren zulepakiyak,<sup>2</sup>  
Mendiyak, charak pasarik,  
Garaipenezko soñu gozoak  
Kantatutzea usterik.

Nola datorren jartzera mendi  
Gañetan bere bandera,  
Gure lurretik Euskaldun-lege  
Maitagarriyak kentzera;  
Nola datorren aritz bortitzak

Igarturikan uztera:  
Nola datorren, atzerritarren  
Legeak emen sartzera,  
Su-garrarekin, burniyarekin  
Euskal-erriya galtzera.

Au jakitean, Bizkaitar danak  
Ariñ azkonak arturik,  
Guda-zantzoaz ibarretara  
Guzti-guztiyak bildurik,  
Beren biyotza sort-erriyaren  
Maitasunagaz suturik  
Aurrera doaz; aurrera pizkor,  
Ausartasunez<sup>3</sup> beterik,  
Dirudiyela festa batera  
Dijoazela pozturik.

Itsas-ertzean burrukaturik  
Dabiltzan bagen antzera,  
Martizti biyak etorri dira  
Paduran alkar jotzera  
Batzuek datoz beren echeak,  
Mendi gozoak zaitzera;  
Datoz beretan dauzkaten gauza  
Maiteakgatik iltzera,  
Eta besteak, paketsu zeuden  
Gizonak gerran jartzera.

(1) Ejército.— (2) Barrancos.— (3) Valor, denuedo.

Batzuek datoz sort-erriyaren  
Premiyagatik armarik;  
Datoz erriyak ematen duen  
Indarrarekin suturik;  
Besteak datoz garaipenaren  
Izenak oso zurturik,  
Utsa bezela lurreratzen dan  
Ondraren nayez beterik,  
Sort-erriyaren maitetasuna  
Zer dan, nonbait, ez jakiñik.

Ez jakiñikan, inolaz, zer dan  
Euskal-erriko semea;  
Ez jakiñikan dala mendiyak,  
Arkaitzak beziñ tinkea;<sup>1</sup>  
Ez jakiñikan bere biyotza  
Dagola ausartzaz<sup>2</sup> betea;  
Ez jakiñikan nolakoa dan  
Euskaldun baten sutzea,  
Begiratzean pelleburuan<sup>3</sup>  
Bere sort-erri maitea.

¡Orra, begira! nola Zuriyak  
Azkona duen jasotzen;  
Nola suturik Bizkaitarrai  
Dien otsarez<sup>4</sup> esaten:  
«Mutillak, gogor! ¡goazen aurre  
Bildurra dute sentitzen (ra!  
Areriyoak,<sup>5</sup> ikusitzean  
Nola geraden alaitzen;  
¡Aurrera, bada! birrindurikan<sup>6</sup>  
Paduran geldi ditezen.»

«¡Aurrera goazen!» esanaz, doa;  
Eta Bizkaitar guztiyak  
Berekin doaz dardaraturik  
Beren azkon ta geziyak.  
Isuritzen dan odolaz, jartzen  
Dira gorririk arriyak;  
Arretzen dira, zikintzen dira

Ibaiko ur, len garbiyak;  
Gorputz illotzez estalirikan  
Gelditzen dira zelaiyak.

Eroritutzen dira zelaiyan  
Illak alkarren gañean;  
Eziñ liteke, ¡ainbeste dira!  
Ibilli beren artean;  
Burusariyak, nausiyak daude  
Mendekoakin nastean;  
Azkenik, illik Ordoño bera  
Eroritzen da lurrean,  
Nola zuaitz bat lurreratzen dari  
Aizkoraz jotzen danean.

Asturiatar bizi diranak  
Au dutenean ikusten,  
Ariñ ta pizkor asitzen dira  
Emendik iges egiten;  
Eta Zuriya Bizkaitarrakin  
Dijoa beren ondoren  
Otsareturik, Malatorañ  
Diela tinke jarraitzen,  
Basauntzai dien bezela  
Zakurrak sangaz segitzen.

Irichitzean Bizkaiko mukan  
Dagoen aritz dontsura,  
Begiratzean nola dituen  
Goitzen adarrak Zerura,  
Zuriyak dio: «Mutillak, itzul  
Gaitezen lengo lekura;  
Gerra amaitu da; biur gaitezen,  
Bada, Bizkaiya barrura,  
Bizi gaitean pake gozoan,  
Len bizi giñan modura.

Etortzen dira Padura-aldera,  
Biyotza pozez beterik,  
Eche maitera biurtu naiyan

(1) Firme.—(2) Valor.—(3) En peligro.—(4) Con entusiasmo.—(5) Los enemigos.—(6) Destrozados.

Choriyak Beziñ ariñik;  
 Pozturik datoz, baña ikustean  
 Anai laztanak illotzik  
 Zelai gañean, samintzen dira,  
 Gelditzen dira tristerik,  
 Len zuten pozak, utsirudiyen  
 Moduan iges egiñik.

Lurperatutzen dituzte gorputz  
 Illikan dauden guztiyak;  
 Sayatzen dira, maitetasunez  
 Sendatu nairik eriyak,  
 Naiz izan oek beren lagunak,  
 Naiz izan beren etsaiyak;  
 Eta dizkate Jaungoikoari  
 Ematen esker zintiyak,<sup>1</sup>  
 Uztarri gabe diradelako  
 Paketsu beren mendiyak.

.....

Ala desegin ziran Ordoñok

Zituen uste guziyak,  
 Egun-sentiyen diran. bezela  
 Desegindutzen odeiyak;  
 Bada Zeruan bilduagatik  
 Pilla trinko beltz aundiyak.  
 Jardunagatik jazarran gogor,  
 Ditu garaitzen argiyak,  
 Mundu onetan gezurzaleak  
 Dituen eran egi yak.

¡Umant argiyak! Nola mendiyen  
 Zutikan dagon aritza,  
 Gizaldiyetan igartu gabe  
 Beraren embor bortitza,  
 Eünki danak igarorikan  
 Gugana zuen oroitza  
 Modu berean etorri zaigu,  
 Zerren umanten bizitza  
 Betikoa dan: illtzeagandik  
 Irichi zuten garaitza.

CARMELO DE ECHEGARAY.

## NEG U A R I .

### AMALAUDUNA.

Negu baltz ta mótxa<sup>2</sup> bizar zuriókaz  
 Atorkígu leiaz<sup>3</sup> kikilduterà?<sup>4</sup>  
 Zeru urdiñári laño arreakaz<sup>5</sup>  
 ¿Zertan ichi deútsak arpegi ederrá?  
 Agura zitála arnasa otzókaz  
 lpar erriráño oa atzerá  
 Eure alderdian agó ekachókaz  
 Etorri bagárik Egoi aldera.  
 Azalako sartu i gure lurréra  
 Narru gorrián or, zugatz<sup>6</sup> guztiá,  
 Errekea orróez, zelai ta mendia  
 Pichicho bat bére ez dakarrelá,  
 lchasoá asárre, Eguzkia lótan,  
 Begirik zabaldu nai ezdabelá.

F. ARRESE Y BEITIA.

(1) Sinceros.—(2) motza=goibela.—(3) leia=izotzu.—(4) kikildu, acoquinar.—(5) arrea. pardo.—(6) zugatza, árbol.